

# CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA:

## *Amodiozko* *edozein gutun bat gehiago* Eider Barandiaran Gallego

Zenbat maite nauzu? Hemendik  
eskatu ez didazun arren suiziden zintzotasunarekin  
mintzo natzaizu gaur,  
lau hitz idazten dizkizut, noizbait irakurriko ez dituzun  
horietakoak,  
ta bukaera gorde nahi dudan arren hau marrazki bat  
dela aitortzen dut;  
zuzen bat nire zehar-esanen ta zure bihurtueneen  
artean.

Gitarrazko gai akustiko bat baginen, ta badaezpada,  
bakarrik badaezpada,  
azken notan okertzen nintzen beti, abestia berriro  
errepikatzeko larritasunez.

Lehen limoiaren zaporea,  
ta baita azken gozokiaren garratza.

# CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA POESÍA 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

Barkatu hitz hauek ez badira zuk nahi izandakoak,  
baina aitortu beharra daukat, maitia, gaur ez dudala loa  
galtzen,  
pentsatzen nola, arrastu hori aurrean nuen arren,  
atzerantz begiratzen harrapatu nuen nire burua,  
zuri begira.

Barkatu esandako guztia egia bada,  
baina aitortu beharra daukat, maitia, gaur ez dudala loa  
galtzen,  
pentsatzen nola, hamar aldiz egona nintzela  
munduaren bukaeran jadanik,  
baino zuk eskatu izan bazenidan,  
hamaikagarren batean galduko nuen burua zuregatik.

Ta barkatu maitia, hitz hauek arnasteko gai ez bazara,  
baina ez diot zure gorputzari irakurtzen utziko,  
gaur ez dut alde egingo zuk eskatzen didazun arte.  
Jostun bat nahi baduzu ta ni zure neurrira egina egotea,  
gaur ezinezkoa.

Ta min egiten dit jakiteak,  
ulertezina egingo zaizun egia bakarra,  
maite egingo zaitudan gehiengoa gutun hau irauten  
duena izango dela da.  
Zenbat maite nauzu? Honaino.